



Eman hegoak euskarari



Duinoko elegiak

Hessek zioen Rilkeren baitatik unibertsoaren musika entzuten zela

ARITZ GORROTXATEGI



1912 urtearen hasieran, Alexander eta Marie von Thurn und Taxis senar-emazteen Duinoko gazteluan zegoela, negozio gutun gogaikarri bat irakurri ostean, lorategira atera, eta Sistianako hondartzara zerman bidexkari lotu zitzaion Rilke. Eguzkia nagusi izan arren, gogor jotzen zuen haizeak. Bat-batean, elegia baten lehen bertsoa iradokitzen zion ahots bat entzun zuen. «Garrasi egingo banu nork entzungo lidake aingeruen koruetatik?». Lehen bertso hartaz gain, lehen ahapaldiko beste batzuk ere apuntatu zituen bere koadernoan. Gauerako, amaitua zuen 'Duinoko Elegiak' izenburuarekin ezaguna egingo zen poema-bildumaren lehen elegia. Hala ere, erditze prozesua luzea

izan zen, han-hemenka gauzatu (Duino, Paris, Munich, Toledo eta, batez ere, Muzot), batera eta bestera ibili baitzen Rilke bera, ia erbesteratu bat bezala. Tartean, Lehen Mundu Gerrak Europako kontinentea zatitu zuen, eta Zweigek «atzoko munda» bataiatu zuen hura erabat deseginda geratu zen.

'Duinoko Elegiak' 1923an argitaratu ziren, eta urte berean eman zuen Rilke argitara 'Sonetoak Orfeori' bilduma, biak ere estuki lotuak. Urtebete lehena, 1922an, T.S. Eliotek 'The Waste Land' emana zuen argitara. Ez ziren gutxi izan 20ko hamarkada hartako maisu-lanak: 1920koa da Paul Valéryren 'Itsas hilerria' (Rilke berak alemanera itzulua); 1922koak dira César Vallejoren 'Trilce' eta

Mandelstamen 'Tristia' ere; 1924koak Saint-John Perseren 'Anabase' eta Nerudaren 'Veinte poemas de amor y una canción desesperada'; eta 1925ekoa, berriz, Eugenio Montaleren 'Sepia hezurak'. Urte bat geroago argitaratu zuen Paul Eluardek 'Oinazearen hiriburua'.

Gaztelaniazko zenbait itzulpenen eskutik etorri izan zaigu Rilkeren maisu-lana: Jaime Ferrero Alemparte (Austral), Jenaro Talens (Hiperion), Eustaquio Barjau (Cátedra), Otto Dörr (Visor) edota Juan Rulfo bera (Sextopiso). Testu kanoniko baten aurrean gaudela baieztatzen datoz itzulpen ugari horiek. Duela gutxi, itzulpen berri eta esanguratsu bat gehitu zaio, Andreu Jaumek eta Adan Kovacs-ek Lumenentzat egindakoa.

Bereziki azpimarragarria da informazio ugari dakarrelako, eta Elegien munduan sartzeko ezin egokiagoa delako. Itzulpenaz gain, sarrera mamitsu bat prestatu dute, eta Rilke 'Elegiak' en ostean ondutako poemak eta idazketa prozesuan zehar bidalitako gutunak gehitu dituzte.

Lan eskerga horri esker, hurbilago senti dezakegu Rilkeren unibertso poetikoa. Hermetikotasuna aipatu izan da askotan. Izan ere, hamaika interpretazio eta teoria eragin izan ditu Rilkeren maisu-lanak. Nor da aingeru izugarria? Nortzuk dira maitaleak? Nortzuk errariak? Heideggerrek esan zuen ez geundela prest oraindik 'Elegiak' eta 'Sonetoak' interpretatzeko. Herman Hessek, berriz, Rilkeren baitatik unibertsoaren musika entzuten zela, eta poeta bera zela aldi berean belarria eta musika-tresna. Galdutako zerbaitek berreskuratzen saiatzen da Rilke, eta, pentsa daiteke aingeru horiek jainkoaren eta gizateariaren artean apurtu den lotura baten eragileak direla, eta Hölderlinen esperientzia jainkotiarrekin bat datozela. Oso argi-

garria da, zentzu horretan, Rilke Witold Hulewicz bere «itzultzaile poloniarrari zuzendutako gutuna. «Eta ni naiz 'Elegiak' en azalpen zuzena eman dezakeena? Nigandik infinituki harago doaz». Bere lanaren hainbat gako argitzen ditu gutun horretan: heriotzak bizitzarekin duen lotura (inoiz ez arerio gisa), mundu «irekia» ren kontzeptua, iragankorra denaren sakontasuna, eraldaketa, mundu ikusezina eta ikus daitekeena («ikusezintasunaren erleak gara»), objektuek gudan uzten duten herentzia gizatiarra, irakurketan kontzeptu katolikoak erabiltzearen gaizki-ulertuak... «Mundu 'ireki' honetan, handiena den honetan», dio Rilke, «'denak' daude, nahiz eta ezin den esan 'aldi berean' daudenik, denboraren desagerpenak guttiak egotea baitakar». Dozena bat urte geroago, antzeko kontzeptu bat jorratuz hasi zuen Eliotek bere poema esanguratsuenetakoa bat, 'Lau Kuarteto' en lehena, 'Burnt Norton' alegia: «Dembora presentea eta dembora pasatua/ acaso daude presente biac dembora futuroan...»

Xolaren berpizkundea

KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ

Zalantzarik gabe, Xola euskal haur literatura modernoko pertsonaiarik esanguratsuenetakoa bat da eta, orain arte behintzat, nazioartean aintzatespen handiena lortu duena. Estatuko beste hizkuntzetera ez ezik, ingelesera, frantsesera, italiarara, alemanera, japonierara... ere itzuli dira txakur karismadun honen bizipenak. Are gehiago, 2015ean ingelesezko itzulpenak -Xolaren lau istorio biltzen dituen liburua- haur literatura itzuliaren Marsh saria jaso zuen. Bernardo Atxagak 90eko hamarkadaren erdialdean hasiera eman zion Xolaren bildumari, eta guztira sei liburu argitaratu ditu. Gainera, 1997an Euskadi Saria irabazi zuen 'Xola eta basurdeak' liburuagatik, bildumako bigarrena. Pozgarria da, beraz, Erein argitaletxeak 'Holaxe bizi da Xola' liburu kaleratu berri izana, bertan serieko bost

liburukiak biltzen baitira: 'Xolak badu lehoin berri', 'Xola eta basurdeak', 'Xola eta Angelito', 'Xola eta Ameriketako izeba' eta 'Xola eta lapurra'.

Xola arratoi-txakur dotorea da, duina eta parekorik gabekoa. Libre ibiltzen da, badaki hitz egiten, gogoak eskatzen diona egiten du... Ez da harrizkoa, hortaz, bere buruaz harro egotea, nahiz eta batzuetan farfailegia izan bere ezjakintasuna aitortzeko. Horrek mota guztietako pasadizo dibertigarriak bizitzera eramaten du. Horrela, umorearen eta ironiaren bidez -haur irakurleak maiz Xolak baino gehiago baitaki-, askotariko gaiak jorratzen dira, hala nola, konpromiso soziala, arrearitziak, gizarte edo kultur aniztasuna, eta abar.



HOLAXE BIZI DA XOLA
ATXAGA/
M. VALVERDE
Erein. 232 orr. 22 euro

Atxagaren idazkera sinplea da, garrantzi handia ematen die elkarrizketei eta pertsonaiek hitz egiteko duten moduari. Era berean, Mikel Valverderen marrazkiek bikain islatzen dute Xolaren izaera eta bizitasuna. Xolaren istorioak erabat entretenigarriak eta erakargarriak dira. Berrargitalpen honi esker gaur egungo haurrek ere altxor ateporal honetaz gozatu ahal izango dute.

Etxekoandreen zoriona

ARANTXA URRETABIZKAIA



Ezenatokia: lagunarteko bazkaria, jatetxe batean. Tarteka biltzen dira jatetxe berean eta ezagunak dira zerbitzariarentzat. Horregatik, papeira eta errotulagailua eskuan, zerbitzaria ausartzen da mahaikideek daramaten elkarrizketan esku hartzen, zer jango duten jakin aurretik jatetxearen jabearen alaba den zerbitzariak zertaz ari diren entzun duelako.

Etxekoandreen zereginaz ari ziren mahaikideak eta emakumeak esan zuen etxekoandre huts direnak direla hobekien bizi diren pertsonak, etxean gozo, seme-alabak eta senarra zaintzen. Gehitu zuen horrelakoek ez dutela etxetik kanpo lan egin nahi, zoriotsu direla dauden horretan. Ezagun zituen mahaikideak, bai, baina normalean ez da haien elkarrizketetan sartzen. Kasu horretan, or-

dea, kontrako norabidea hartu zuen, agian barruan su txiki bat zuelako. Gainerakoek isiltasuna baliatu zuen gehitzeko alferrikakoak direla feministen ahaleginak, etxetik kanpo lan egiteak ez duelako emakume bat zoriotsuago egingen.

Halako batean, mahaikideak deseroso sentitzen ari zirelako edo, emakume batek esan zion zerbitzariari aspaldiko kontuak zirela horiek, gaur egun familia gehienetan emakumeek ez dutela aukera hori, ez delako aski soldata bakar batekin. Zerbitzaria isildu egin zen, harrিতa. Isilune hori baliatuz esan zion mahaikideak etxekoandre hutsak desagertzen ari zirela eta ez feministen kulpaz, hipotekaren eraginaz baizik, laster etxekoandre huts izatea aberatsen kontua izango zela soilik.

Eskariaren zain zegoen emakumeak zabaldu zuen ahoa, zer erantzun behar zuen aurkitu zuelako. Mahaikide batek, ordea, moztu egin zion erantzuna. Esan zion eztabaida oso interesantea zela, baina lekuz kanpo zegoela. Zerbitzariak ulertu zuen mezua, baina errotulagailua eskuan, berretsi zuen, etxekoandre hutsak direla emakumerik zoriotsuenak.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 19 kamera

Jon Arretxe. Erein

2 Printzak begietan

Iratxe Ormatza. Elkar

3 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

4 Eraikuntzarako materiala

Eider Rodriguez. Susa

EZ FIKZIOA

1 Bizitzak

Koldo Alijostes. Pamiela

2 Zaintzaren hariak

Felix Arrieta. Elkar

3 Irunberri 1990

Pako Aristi. Erein

4 Ura saltoka

Juan Kruz Igerabide. Alberdania